



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net

Menpeko pertsona adintsuentzako eguneko zentrozen jarduera memoriaren eredua

Gizarte Zerbitzuen Saila
Departamento de Servicios Sociales

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
Dirección de Servicios Sociales

Eguneko zentroa da 60 urtetik gorako 5 pertsona edo gehiago egunez banaka artatzeko programa eskaintzen duen establezimendua; pertsona horiek beste batzuen laguntza behar dute, eguneroko bizimoduko jarduerak egin ahal izateko. Halaber, artapena eman ahal izango zaie zirkunstantzia pertsonal eta sozialengatik aipatutako kolektibo horren parekoak diren pertsonei. Horretarako, bada, atondutako lekua eta instalazioak erabiliko dira eta pertsonal egokia eta jarduketara programa propioak baliatuko.

1. Helburu orokorrak:

Eguneko zentroaren helburu orokorra da menpeko pertsona adintsuen eta haien senitartekoen arteko bizi baldintza egokiak sortzen laguntzea, bi alderdiei ahal denik eta autonomiarik eta bizi kalitaterik handiena eskaintzeko bideak erraztuz.

2. Helburu zehatzak:

Atal honetan helburu orokorrak lortzeko garatuko diren jarduketan zerrenda bat jasoko da, bai eta marko kontzeptuala, lorpenari begira jarraituko den metodologia eta lorpenerako, kontrolerako eta betetze mailaren jarraipenerako jarraituko den metodologia ere. Talde bakoitzaren helburu zehatzak finkatu behar dira: eguneko zentroko egoiliarrenak, familienak eta pertsonalarenak. Helburuak honela ezartzen dira: menpeko pertsona adintsuentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren 5 eta 6. artikuluetan ezarritako jarraibideen bitartez. Gutxien-gutxienik honako puntu hauek garatu behar izango dira:

2.1. Erabiltzaileak artatzeko helburuak:

- Menpeko pertsona adintsuak bere ohiko inguruan jarraitzeko aukera ahalbidetzea.
- Erabiltzaileei banakako artapen osoa eskaintzea.
- Erabiltzailearen gizarte integrazioa sendotzea, ahal denik eta gehien, zentroaren bizitzan, familiaren ingurune-

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuaren 8.2. artikulua ezartzen du zerbitzuek eta zentroek garatu beharreko jardueraren azalpen memoria bat aurkeztu behar dutela; memoria horrek honako hauek zehaztuko ditu beren-beregi:

an eta komunitatearenean, betiere gizarte partaidetza garatzera bideratutako jarduerak osatuko duten gizarte eta kultur programa baten bidez.

- Erabiltzaileen premiak eta beharrezkoak asebetetzea, ahalik eta autonomi mailarik handiena lortzeko egokiak diren programak garatuz; helburu horri begira, bada, jardueren eguneko planifikazioa egingo da, betiere gaitasun pertsonalen garapenari bideratua.
- Aurreikusitako hiru eremuetan atzerakada saihestea, hau da, eremu fisiko, psikiko eta sozialean.
- Berreskura daitezkeen trebetasunak bultzatzea.
- Hondamen fisiko eta psikikoko egoerak prebenitzea.
- Erabiltzaileen arteko taldekako hartu-emanak bultzatzea eta senitartekoekin nahiz eguneko zentroko langileekin.
- Taldearen benetako integrazioa erraztea zentroan.
- Okupazioa eta aisialdiaren gozamena hobetzea.
- Atzemandako gaixotasun eta desorekak terapeutikoki kontrolatzea eta jarraitzea sendagilearen zuzendaritza eta ikuskapenaren arabera, baita ere agindutako medikamentuak behar bezala hartuko direla.
- Elikatzeko erregimen osasuntsu, orekatu eta askotarikoa eskaintzea eta beharrezkoak diren dietak prestatzea.
- Artapenerako Banakako Plana prestatzea, erabiltzailea ahal denik eta ondoen artatzeko askotariko diziplinen ikuspegi batetik aurrera eraman beharreko jarduketak azal daitezzen.

2.2. Egoiliarren familiekiko helburuak:

- Haien senidearekin jorrazteko moduko estrategiarik egokienei buruz eta zirkunstantzia bereziei buruz argibideak, laguntza eta aholkuak ematea, haren ingurunean mantendu ahal izateko.
- Senitartekoei eta ohiko zainzaileei menpeko pertsonaren zainketa eta artapena erraztea.
- Artapenerako Banakako Planaren garapenaren inguruan informatzea eta senitartekoen partaidetza lortzea.

2.3. Langileekin lortu beharreko helburuak:

- Motibazio pertsonalari eustea etengabeko estimuluen bitartez, betiere adineko pertsonen bizi kalitatea hobetze-ko eta handitzeko jardun profesional egokia baliatuz.
- Pertsonalaren etengabeko prestakuntzari bultzada ematea.
- Esperientzien trukea eta langileen ezagutza sustatzea.
- Eguneko zentroan proiektatutako programen aplikazioa erraztea, bideratzea, sustatzea eta bultzatzea.
- Pertsonalarengan kideztaren, erantzukizunaren eta jardun profesional egokiaren zentzua garatzea. talde lanaren bitartez.

3. Esku hartzeko programak:

Menpeko pertsona adintsuentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen du askotariko jarduera antolatuen urteko plangintza bat prestatu behar dela, Esku Hartzeko Plangintza Nagusiaren barruan txertatuz eta betiere helburuak, egutegia, metodoak eta burutzapen teknikak adieraziz, bai eta ebaluazio sistemak ere; horren guztiaren helburua, azken batean, azaldutako prestazioak bermatzea baizik ez da. Zehaztu behar izango da zeintzuk programa diren ezarritakoak, eta memoria honi erantsiko zaizkio. Eguneko zentroaren memorian sartutako programek haren benetako egoera islatu behar dute oso-osorik.

Komeni da esku hartzeko programak multzokatzea arloen arabera; hona hemen horren adibide bat: osasun programa, programa psikologikoa, gizarte eta kultur artapenerako programa, artapen estimulagarriko programa, gizarte laneko programa eta langileen etengabeko prestakuntzako programa.

4. Erabiltzaileen profila:

Aintzakotzat hartu beharra dago menpeko pertsona adintsuentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen

duela erabiltzaileak 60 urtetik gorakoak izango direla eta eguneroko bizitzaren jarduerak aurrera ateratzeko maila ertain edo altua (senitartekoein bizi izanez gero) izango dutela edo maila txikia baina okerrera egiteko arriskuarekin (kasu horretan, bakarrik edo senitartekoein bizi izanez gero). Nolanahi ere den, osasun artapen trinkoa behar duten adineko pertsonak bazterten dira, bai eta elkarbizitza nabarmen zail dezaketen edo gainerako erabiltzaileei arriskuren bat ekar diezaiaketen portaera desorekak dituztenak ere.

Horrela, zehaztu beharra dago zein izango den eguneko zentroko erabiltzaileen profila.

5. Baliabide materialak eta giza baliabideak:

Menpeko pertsona adintsuentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren I. eranskina menpeko pertsona adintsuentzako eguneko zentroen kalitate, material eta funtzio arloko baldintzei buruz ezarritakoa betetzeko, deskripzio bat egin beharra dago adineko erabiltzaileak artatzeko beharrezko bitarteko materialei eta ekipamenduari buruz.

Gauzak horrela, ezinbestean zehaztu behar izango dira teknikari eskudun batek izenpetutako burutzapen proiektu teknikoan jasotako memorian deskribatzen ez diren ekipamendua eta altzariak, hala nola:

- Bainugela eta komunetako altzariak eta laguntza teknikoak (kanila motak, laguntza barrak...).
- Gune erkideetako altzariak (mahaiak, aulkiak, telebis-tak, musika erreproduzitailea eta jardueretarako erabil daitezkeen gainerako materialak, telefonoa...).
- Geletako altzariak (ohe mota, ea artikulatuak diren ala ez, armairuak eta gau mahaiak...).
- Sukaldeko ekipamendua.

Giza baliabideei dagokienez, honako arautegi hauek bete behar dira: batetik, menpeko pertsona adintsuentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren I. eranskinaren 8. puntuan ezarritakoa; eta, bestetik, Gizarte Politikarako, Familietarako eta Mendekotasun eta Ezgaitasunaren Artapenerako Estatu Idazkaritzaren 2008ko abenduaren 2ko ebazpena, haren bitartez Autonomiarako eta Mendekotasunaren Artapenerako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Erabakia argitaratu baita, betiere Autonomiarako eta Mendekotasunaren Artapenerako Sistemaren zentroen eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko irizpide erkideei buruzkoa. Halaber, azken arau-

tegi horretan lanpostu bakoitzerako beharrezkoa diren titulazioak ere ezartzen dira.

Zehatz-mehatz deskribatuko da zentroa artatuko duen langile zerrenda, haren okupazioa % 100ekoa denean; gauzak horrela, langileen titulazioa, funtzioak, lanordu kopurua, atsedenaldiak eta lan txandak zehaztuko dira. Edozein kasutan ere, aipatutako 8. puntuaren ezarritako ratioak bete behar izango dira.

Gerta daiteke zentroak bestelako zerbitzu profesionalak edo kanpo enpresak kontraturik izatea edo kontratatzea aurreikustea; halakoetan, honela jaso behar izango da atal honetan (garbiketa zerbitzuak, janariak, arropa garbiketa, lorezaintza, mantenimendua, aholkularitza, osasun artapena, garraioa, eta abar).

Era berean, borondatezko pertsonalari dagokiona ere jaso behar izango da.

6. Edukiera:

Eguneko zentroan aldi berean dagoen erabiltzaile kopurua.